

Lan-legepeko hezitzaileak eta irakasleak

N
e
g
o
z
i
a
z
i
o
a
k

7. NEGOZIAZIO MAHAIA

2013 - 11 - 21

- **Fisioterapeutak:** asteko lanaldia eta desplazamentuengatik indemnezioak
 - *Asteko lanaldia:*
 - Administrazioak arreta zuzeneko gutxieneko ordu kopuru bat proposatzen du (20 ordu), baina asteko lanaldi jakin bat finkatu gabe.
 - Koordinaziorako eta desplazamentuetan ematen den denbora asteko lanaldiaren gainontzeko denboran konputatu nahi dute eta asteko lanaldiaren ordu kopuru maximoa itxi gabe geratzeak suposatzen du, desplazamentuen intentsitatearen arabera, fisioterapeuta bakoitzak asteko lanaldi ezberdina izan dezakela.
 - "Arreta zuzena" zertan datzan galdetzen du Administrazioak. (Bai, ondo irakurri duzue. Ez da txantxa).
 - Erreferentziako zentroaz edo ikastetxeaz eztabaidatzen da. Hau garrantzitsua da, bai desplazamentuen denbora eta indemnezioak ezartzeko bai lan-egutegia finkatzeko.
 - *Desplazamentuen indemnezioa:* Puntu honetan, adostasun batera ailegatuko dela ematen du. Hurrengo bilera batean aztertuko dugu zein terminoetan egiten den.
- **Hezkuntza Laguntzako Espezialistak:** Asteko lanaldia. Ikasturte honetako ordutegiak aztertu ondoren, bueltak ematen ari zaizkio gaiari kolektibo honetan asteko 37'5 orduko lanaldia finkatzeko, plaza berriak sortu gabe. Alajaina!!!
- **Hurrengo bilera:** Data finkatu gabe.

STEE-EILASen jarrera:

- Argi dago, fisioterapeuten kasuan, Administrazioak sortutako zerbitzu baten kostua (denborarena eta ekonomikoa) langileei pasatu nahi diela. Honek, gainera, langileen lan-baldintzen okerragotzea ekartzen badu, onartezina da.
- Fisioterapeuten lanaren arlo batzuk zalantzan jartzea ere ezin dugu ontzat hartu. Arreta zuzeneko orduak, koordinazioak, aholkularitzak... lana bera da, baita zerbitzu hori egiteko desplazamentuak (ematen badira) ere. Horregatik, honek guztiak asteko lanaldian edukiera izan behar du.
- Hezkuntza laguntzako espezialistei dagokionez, lanpostu berriak sortu gabe, asteko lanaldi batzuen ordutegi batzuk 37'5 orduetatik ez pasatzea eginkizun zaila (ezinezkoa ez esateagatik) da.

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA
Eulogio Serdán, 5. behea 01012 – Gasteiz Telf.: 945 14 1104 Fax: 945 14 43 02 Email: araba@stee-eilas.org	Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 – Bilbo Telf.: 94 410 02 98 Fax: 94 410 13 60 Email: bizkaia@stee-eilas.org	Baso-txiki, 30-34 (atzekaldea) 20006 – Donostia Telf.: 943 46 60 00 Fax: 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org	Descalzos, 72 (lonja) 31001 – Iruñea Telf.: 948 21 23 55 Fax: 948 27 00 48 nafarroa@stee-eilas.org